





DA!



54. DURANGOKO AZOKA

2019ko abenduaren 5etik 8ra

PRENTSA-TXOSTENA



DATAK

Abenduaren 5etik 8ra arte:

- Orduategia: 10:30etik 20:00ak arte (Landako Gunea).
- Abenduak 5: Ikasle Goiza. Ate irekiera, 10:30ean.
- Abenduak 5: Inaugurazio ekitadia. 19:00etan Musika Eskolan.
- Abenduak 6: Sormen Beka. Prentsaurrekoa. 10:30ean, Areto Nagusian.
- Abenduak 8: Azokaren inguruko ikerketa. Prentsaurrekoa. 10:30ean Areto Nagusian.
- Abenduak 8: Ate itxiera, 20:00etan.

Komunikazio arloarekin lotutako datak:

- Akreditazioak: akreditazioa egiteko epea azaroaren 21ean irekiko da. Fitxa bat bidaliko zaie hedabideei, eta webgunean ere eskegiko da.
- Ipar Euskal Herriko aurkezpena: azaroaren 26an izango da, 11:00etan, Baionako Euskal Museon.
- Balorazioa: 54. edizioko balorazio prentsa-oharra abenduaren 8an bidaliko da, arratsaldean.

HARREMANETARAKO

Informazioa eskatzeko eta elkarrizketak lotzeko:

Prentsa: Julen Nafarrate Aurrekoetxea
prentsa@durangokoazoka.eus | Telf. 687 245 352

Komunikazioa: Ioar Oteiza Goienetxe
komunikazioa@durangokoazoka.eus | Telf. 660 716 097

SAREA

Webgunea

Orokorra: <http://www.durangokoazoka.eus>


Bertan agertuko da egitarau gaurkotua, sortzaileen sinaduren ordutegiak, unez unekoa, bideoak, argazkiak eta azken berriak.

Prentsa Bulegoa: prentsa-oharrak eta deskargatzeko baliabideak egongo dira.

Twitter

@durangokoazoka

Proposatzen ditugun traolak: #54DA #osorikDA



Facebook

<https://www.facebook.com/DurangokoAzoka>

Instagram

http://instagram.com/durangoko_azoka/

Flickr

<http://www.flickr.com/durangokoazoka>

Youtube

<http://www.youtube.com/user/DurangokoAzoka>


FITXA TEKNIKOA

- Antolatzailea: Gerediaga Elkartea
- Babesle Nagusiak: Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzia.
- Erakunde publikoak: Durangoko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Nafarroako Gobernua, Kultura Ministerioa.
- Erakunde pribatuak: BBK, Euskaltel, Eroski.
- Guneen koordinazioa: Berbaro, Ahotsenea, San Agustin Kultur Gunea, Karrika Antzerki Taldea, Topagunea, Kabi@, Plateruena, Azoka TB.

54. EDIZIOA, ZENBAKITAN

Landako gunea

- Stand kopurua: 240 stand handi eta 24 txiki.
- 200 kultur ekitaldi baino gehiago
- Aurkeztuko diren nobedadeak: 405
- Liburuak: 273
- Diskoak: 91
- Aldizkariak: 16
- Ikus-entzunezkoak: 5
- Bestelakoak (joku, agenda, egutegi...): 20



DURANGOKO AZOKAKO ERAKUSMAHAIEK IRUDI BERRIZTUA IZANGO DUTE 54. EDIZIOAN

Prentsa-oharra / 2019-11-20

- *Abenduaren 5etik 8ra arte 200 kultur ekitaldi baino gehiago egongo dira Durangoko Azokako zazpi guneeetan. Musika Eskolan jarduerak antolatuko dira lehen aldiz, Gogoetaren Plaza eta DA! PRO ekimena kasu.*
- *264 erakusmahai egongo dira Landakon, 405 nobedaderekin: 273 liburu, 91 disko, 16 aldizkari... Lehenengo aldiz 30 urtez, erakusmahaiak berriztuko dira, eta, ondorioz, Landakoko irudia aldatuko da.*


Durangoko Azokak aurtengo edizioaren nobedade eta datu orokorrak aurkeztu ditu gaur, azaroak 20, Bartolome Ertzilla Musika Eskolan egindako prentsurrekoan. Bertan izan da Gerediagako presidente Nerea Mujika, eta Azokako guneeetako ordezkariak: Johana Olabarria (Irudienea), Itsaso Gangoitia (Saguganbara), Arantza Arrazola (Szenatokia), Unai Pelayo (Ahotsenea), Esther Soto (Areto Nagusia), Ihintza Orbegozo (Plateruena) eta Gorka Julio (Kabi@).

Prentsurrekoa Musika Eskolan antolatu da, Landako Gunearen atzekaldean, espazio hori izango baita aurtengo nobedade nagusietako bat: "Azken urteotan Azoka handitzen ari da eta Durangon zehar zabaltzeko ahaleginetan gabiltza. Edizio honetan Musika Eskola espazio berri bat izango da: hemen antolatuko dira inaugurazio ekitaldia, Gogoetaren Plaza eta DA! PRO egitasmoa".

Azken ekimen hori ere 54. edizioko beste berritasun bat izango da. Lehenengo aldiz, Durangoko Azokak Euskal Herriko programatzailerak eta musikaren sektoreko sortzaile eta profesionalen arteko topaketa antolatu du, Musika Bulegoarekin elkarlanean. Azokako lehen egunean izango da, goizean zehar.

Ohiko espazio batean, Landako gunean, berritasunik ere egongo da. 30 urtez lehenengo aldiz, Azokak erakusmahaien irudia aldatuko du. Landakoko argazki orokorra, beraz, aldatuko da. "Gure asmoa gaur eguneko tendentzietara egokitzea eta erakusmahaiak errazago identifikatzea izan da. Erakusmahaiak egurrezkoak izango dira eta errotulazioetan kolore desberdinak eta ikonoak izango dituzte. Azokak bere burua eguneratzeko ahaleginetan jarraitzen du".

54. edizioan, guztira 264 erakusmahai egongo dira: 240 handi eta 24 txiki. "Aurreko urteetan baino eskari gehiago jaso ditugu". Produktuei dagokienez, 405 nobedade egongo dira: 273 liburu, 91 disko, 16 aldizkari, 5 ikus-entzunezko eta 20 bestelakoak. Autoekoizleen plazan, bere aldetik, 14 sortzaile batuko dira, disko, liburu eta ikus-entzunezkoekin.



Azokako bigarren egunean, bere aldetik, Azokako Sormen Bekaren irabazleak zeintzuk diren jakinaraziko da. Aurtengo gaia musika da, beraz, disziplina horregaz lotuta egondako proiektu bat izango da sariduna. Era berean, iazko irabazleek euren proiektua aurkeztuko dute: AtopiaRPG euskarazko lehenengo rol-jokoa.

Gerediagako presidenteak azaldu duenez, Azokako aurrekontua 668.450 eurokoa izango da. "Aurrekontu horrekin Azokak egiten duten ekarpena handia da; alde batetik euskal kulturaren transmisio eta zabalkundeari dagokionez, eta bestalde alderdi ekonomikotik sektoreari eta Durangaldeari egiten diona". Ekarpene horri lotuta, Azokako azken egunean prentsaurrekoa antolatu du Durangoko Azokak, Siadeco taldearekin batera, Azokaren eragin ekonomikoaren inguruko ikerketa aurkezteko.

Egitarauari dagokionez, 54. edizioan 200 ekitaldi baino gehiago egongo dira, 700 metrotan eta 5 minutuko distantzian. Ahotsenean Euskal Herri osoko 111 talde, bakarlari eta idazle batuko dira, zuzenekoan karpan eta solasaldien gunean. Urtero bezala, sortzaile ezagunek sortzaile hasiberrieekin partekatuko dute eszenatokia.

Irudienean, ikus-entzunezkoen gunean, mundu digitalarekin lotutako hainbat proiektu aurkeztuko dira: websailak, youtuberrak eta abar. Era berean, memoria historikoa lantzen duten dokumentalak eta fikzioak ere proiektatuko dituzte. Saguganbaran, familien espazioan, urtero bezala umeentzako ikuskizun eta tailer ugari antolatu dituzte. Aurten bereziki, autoekoiztutako ipuinek indar berezia izango dute. Aretu Nagusian, urtero bezala, eragile, elkarte eta erakundeek euren egitasmoak aurkeztuko dituzte. Ekitaldirik bereziena "Throwing voices" izango da, Edinburgoko Liburu Azokarekin eta Etxeparerekin elkarlanean.

Gogoetaren Plaza Musika Eskolan antolatuko da lehenengo aldiz, eta bertan landuko diren gaiak honakoak izango dira: lizentzia libreak hedabideetan, euskal prentsa, kulturgintzaren profesionalizazioa eta euskara integrazioa hizkuntza gisa. Kabi@ kultura digitalaren gunea izango da, eta ohiko topaketez gain (Gamer gela, wikilariak...) oso aurkezpen interesgarriak egingo dituzte. Egitaraua, gainera, kontzertu batekin amaituko dute: "Mauriziak ez du inor hil".

Szenatokian, bere aldetik, Kukai dantza taldearen "Erritu" ikuskizuna izango dute, eta asteburuan Dantza eta Antzerki Laburren Jaialdia egingo dute, 10 konpainia eta 30 emanaldirekin. Plateruenan, azkenik, kontzertu handiez gozatzeko aukera egongo da: ETS, Zetak, Arkada Social eta amaitzeko, Mainer Zabalegi.

Azkenik, Gerediagako presidenteak Azokara garraio publikoz etortzeko gonbitea egin die azokazaleei. Autoz etorriko direnentzat, doako autobus zerbitzua egongo dela gogoratu du, Landakotik lurretako peaje inguruko aparkalekuetaraino, 20 minutuko maiztasunarekin.

EGITARAU GUNEZ GUNE

■ Areto Nagusia

Landakoguneko Areto Nagusian guneetako eduki berezietatik kanpo geratzen diren egitasmoak aurkezteko lekua izaten da. Aurten ere, bertan aurkeztuko diren argitalpenen gaitegia oso zabala da: unibertsitateek sustatutako azterketa lanetatik hasi, edota aisialdira begirako eskaintzak, zein gizarte gaiak jasotzen dizuten zabalkunde liburuak.

Bestetik, aurten ere euskal kulturgintzan esanguratsuak diren eta hurrengo urtean errepikatuko diren egitasmoen aurkezpenak izango ditugu. Besteak beste, Loraldiaren seigarren edizioa eta EuskarAbentura espedizioa 2020.

Badira, gero, bi mahainguru interesgarri kulturgintzarekin lotura estua dutenak:

1. Euskadi Sariak euskal literaturaren kanonetatik at? Galderari erantzuten saiatuko dira hainbat idazle, tartean saridunak.
2. Dokumentategien erronkak aztertuko dira Xenpelar Dokumentazio Zentroak koordinatutako beste solasaldi baten.


Bada, gero, Gerediaga Elkartearentzat berezia izango den ekitaldi bat. Iazko Azokan Edinburgoko Nazioarteko Liburu Jaialdiko arduradunak Durangon izan ziren eta aurtengo udan Gerediagakoak bisitan izan dira. Horrek aurtengo azokan badu ikuskizun modura datorren emaitzarik. "Throwing voices" izeneko ikuskizunean Uxue Alberdi eta Rachel Newton idazle eta arpa-jotzaileak, bi sortzaileen arteko elkarriketa musikatu bat eskainiko dute.

■ Ahotsenea

Lau egun, 49 disko-aurkezpen eta 62 solasaldi. Ahotsenea sortzaileen plaza bihurtuko da beste urte batez. Aurreko urteetan bezala, ibilbide luzeko musikari eta idazleek eszenatokia partekatuko dute euren ibilbidea hasi berri duten musika-talde, bakarlari eta idazleekin. Hori da, hain zuzen ere, Ahotsenearen ezaugarri nagusia: estilo, jatorri eta ibilbide ezberdineko sortzaileak espazio berean batzea.

Musikari dagokionez, nabarmendu behar dugu nagusi izango direla autoekoizpenen bidez euren lanak kaleratu dituzten musikariak. Estiloari dagokionez, rocka nagusi izango bada ere, aniztasun handia egongo da: hip-hop, trikitixa, eletropunk, heavy, indie, trap eta abar.

Izen ezagunen artean, Zea Mays, Skakeitan, Oreka TX, Willis Drummond, La Basu, Mad Muasel, Keu Agirretxea, Revolta Permanent eta abar. Lehenengo diskoa kaleratu duten hainbat talde ere egongo dira: Iñorkiñak, Arima, Habi, Saia Goait, Gorribaltz, Sua, Ibil Bedi, Serge...



Solasaldien kasuan, komikigintzak azken urteetan izan duen gorakada ere sumatu dugu. Hainbat komiki obra aurkeztuko dira, eleberri, saiakera eta olerki-liburuekin batera.

Sortzaile ezagunen artean, honakoek parte hartuko dute: Karmele Jaio, Kirmen Uribe, Bernardo Atxaga, Unai Elorriaga, Miren Amuriza, Anjel Lertxundi, Miren Agur Meabe...

Guztira, Euskal Herri osoko 111 talde, bakarlari eta idazle batuko dira Ahotsenean.

■ Saguganbara

Saguganbaran, beste urteetan bezala bi areto izango ditugu. Areto Handian, aurkezpenak izango ditugu eta areto txikia, aldiz, irakurketa librerako eta tailerretarako gunea izango da. Familientzako zuzendutako gune honek Ikasle Goizeko tailerrekin irekiko ditu ateak.

Lau egunetan zehar ipuin eta liburuen aurkezpenak izango dira nagusi, horietako asko autoekoizpenak izango dira gainera. Bitxikeri moduan Herensugeen itzulera, familia batek idatzitako liburua izango dugu.

Baina liburuen aurkezpenez gain, bestelakoak ere egongo dira Txiki eta Handien gunean: ipuin kontaketak, yoga eta ipuinak uztartzen dituen Yogipuinak, adibidez; STEAM esperimentuak haurrentzat; askotariko tailerrak; ume jaio berrientzako Azalerako ipuinak, jolasak eta poesia eta komiki tailerrak; Kokojoko bideo-jokoa; Ene Kantaken kontzertua edo Lo Potolo, lotara joateko ipuinak eta poemak irakurtzea eta zuzenean marraztea, eta askoz gehiago.


■ Plateruena

Beste urte batez, Plateruena kontzertu handien plaza izango da. Durangora ondo pasatzeko asmoz eta giroaz gozatzeko gogoz etortzen direnek Kafe Antzokian horretarako aukera izango dute egunero. Abenduaren 5etik 8ra arte, publiko guztietarako eskaintza izango dugu, gazte, heldu eta nagusientzat.

Lehenengo egunean Arabako ska doinuak izango dira protagonista. Gaueko 23:00etatik aurrera En Tol Sarmiento talde ezagunak "Aukera berriak" bere azken diskoa aurkeztuko digu zuzenean. Bigarren egunean banda berri batek hartuko du lekukoa. Pello Reparazen proiektu berria ezagutuko dugu, Zetak, musika elektronikoa beste estilo berriekin nahasten duen musika taldea. Abenduaren 7an Arkada Social taldearen txanda helduko da. Arrasatearrak euren lan berriarekin etorriko dira Durangora, "No retorno" album berria, betiko rock, punk eta oi doinuei eutsiz.

Tradizioa bihurtu den bezala, azken egunean kontzerturik lasaiena izango dugu Plateruenan. 20:00etatik aurrera, Landakoko ateak itxi eta gero, Maider Zabalegiren zuzenekoaz gozatzeko aukera izango dugu. Azoka borobiltzeko modu bikaina izango da.

Eta noski, egunero, Plateruenan mokadutxo bat edo trago bat hartu gura dutenek, leku ezin hobea izango dute, Azokan bizitakoa komentatzeko, eta giroaz gozaten jarraitzeko.



■ Irudienea

Irudienean istorioez jositako egitaraua izango dute. Zugaza zinemetan, goizeko 11:00etatik 21:00ak arte, proiektoreak martxan izango dituzte.

Mundu digitalak oso presentzia nabaria izango du aurten Irudienean. Hiru websail aurkeztuko dira: Tantaka, Pikuak eta Kartzela. Horrez gain, sarean sortutako beste hainbat proiektu ere izango dituzte; Sinadurak TV, Dapa edo 27zapata, adibidez.

Memoria historikoa lantzen duten gaiak ere oso presente egongo dira Irudienean. Adibidez: Zamorako espetxean preso egon ziren apaizei omenaldi xumea egingo zaie, “Apaiz-Kartzela” dokumentalaren lehenengo irudien proiektioarekin batera. “Ez, eskerrik asko. Gladysen leihoa” lanarekin borroka antinuklearra gogoan izango dugu; “Anti” laburmetraia, Ipar Euskal Herrian euskarak pairatu zuen debekuen ingurukoa; “Lou, dantzan jo eta ke. Oinak lehertu nahian”, Euskal Herriko rock eszenan emakumeen hastapenei buruzkoa eta abar.

Laburmetraiak, hurrei zuzenduriko euskarazko zinema, websailak, proiektu aurkezpenak, aurre-estreinaldiak, dokumentalak...


Sortzaileak, aktoreak, zuzendariak... bertan izango ditugu beraien lanak aurkezten, ikusleen zalantza eta iritziak partekatzen.

■ Szenatokia

Szenatokian aurten hainbat nobedaderekin etorriko gara. Arte eszenikoak gustoko duten azokazaleek San Agustinen izango dute ezinbesteko hitzordua.

Abenduaren 6an izen handiko dantza talde bat izango dugu gurean: Kukai Dantza Taldea, “Erritu” bere ikuskizun zoragarriarekin. Horrez gain, egun horretan bertan Ganbila antzerki bildumaren aurkezpen teatralizatua egingo da, EHAZEK antolatuta.

Nobedaderik potoloena asteburuan etorriko da, abenduaren 7an eta 8an. Lehenengo aldiz Antzerki eta Dantza Laburren Jaialdia antolatu dugu. Euskal Herriko hamar konpainiak parte hartuko dute, eta guztira 30 emanaldi baino gehiago egongo dira. Emanaldiak San Agustineko ez-ohiko lekuetan egingo dira: ganbaran, bulegoetan, hall-ean... eta batzuk aldi berean izango dira, ordutegi berean. Ikusleak, beraz, Szenatokian bere egitarau propioa egiteko aukera izango du.



■ Kabi@


Aurtengoan Kabi@ domo batean egongo da, Landako Gunea eta Saguganbararen arteko plazan. Bertan mundu digitalean euskaraz sortutako azken nobedadeak topatuko ditugu.

Arlo honetan hezkuntzak duen garrantzia kontuan hartuta ikasle goizeko tailerrekin abiatuko dugu Azoka. Abenduaren 6an, Gamer Eguna izango dugu eta egun osoan zehar euskarazko bideojokoak izango ditugu bertan; goizean aurkezpenak eta arratsaldean, aldiz jolaserako tarteak izango da. Larunbat goizean, Wikipedia eta Txikipediaren zurrunbiloan murgilduko gara eta arratsaldean, AtopiaRPG, pasa den durteko sormen bekaren irabazleek, zuzeneko rol partida bat eskainiko digute. Azken eguna beteta dator, goizean zehar burujabetza teknologikoaren inguruan arituko gara, eta arratsaldean “Egunean behin” aplikazio arrakastatsuen aurkezpena izango dugu. Eta aurreko kultura digitalaren plaza bitxikeria batekin itxiko dugu. Maurizia Aldeiturriagari berriro bizia eman dion “Mauriziak ez du inor hil” kontzertu berezia, Ines Osinaga eta Lorea Argarateren parte-hartzearekin. Abenduaren 8an 18:00etan izango da. Azoka amaitzeko modu paregabea!

AUTOEKOIZLEEN PLAZA

Seigarren urtez, autoekoizleek euren espazioa izango dute Durangoko Azokan. Aurreko 14 autoekoizleek parte hartuko dute Autoekoizleen Plazan. Hamar lehenengo aldiz etorriko dira Azokara, eta beste lauk iazko esperientzia errepikatuko dute:

- “Zure bihotzean” liburua. Jose Mari Sarasola.
- “Ekologista naiz, baina...” liburua. Gorka Egia.
- “Zaldiaren jokoak. Xakeen historia bat” liburua. Patxi Angulo.
- “Yoga Kartak - Yogipuinak”. Maite Arrese eta Margi Egiguren.
- “Azalerako ipuinak” diskoa. Saroa Bikandi.
- “Menditarrak” diskoa. Bankako Menditarrak.
- “Napardeath” filmea. Katihotsak Kultur Elkarteak.
- “Xaxardi” ipuina. Joana Ziganda eta Iker Uribe.
- “Herensugeen itzulera” liburua. Ander Errasti.
- “El secreto de Gibola” liburua. Ane Odriozola.
- “Kaka dantzaria” ipuina. Bego Goitia.
- “Yoga saioa” diskoa. Maite Eizmendi.
- “Orbanak, burbuilak eta kremazko bonbak” liburua. Silvia Manzana.
- “La casa de la buhardilla” liburua. Maria Romero Fernandez.



SPOTIFY MUSIKA ZERRENDA

Aurtengo beste nobedade bat Spotify zerrenda izango da, aurten Azokan egongo diren musika-nobedadeekin. Azaroaren 15etik aurrera entzungai egongo da, eta Azokan diskoa aterako duten banden abesti bana agertuko da. Bertan talde ezagunak eta sortu berriak agertuko dira, hainbat musika estilorekin: rock, pop, hip-hop, trap, trikitixa...

AZOKAREN AZTERKETA EKONOMIKOA

Azokaren azken egunean, Gerediagak Siadeco ikerketa-taldearekin batera egin duen ikerketaren berri emango du. Prentsurrekoa abenduaren 8an 10:30ean Areto Nagusian izango da. Bertan, iazko azokan egindako ikerketaren nondik norakoak azalduko dira: kulturaren plazaren eragin ekonomikoa, bisitariaren perfila, partehartzaileen balorazioa eta abar.

AUTOBUSA

Beste urte batez, doako autobus-zerbitzua martxan ipiniko da Landako Gunea eta Durango inguruko aparkalekuak lotzeko. Autobusek Landako Guneko ordutegia izango dute, eta joan-etorrian ibiliko dira uneoro, 20 minutuko maiztasunarekin.